

URUMEAKO **kronika**

2018/08/24

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



PDF

HERNANI Abuztuak 24



albisteak//TXOTX IREKIERA ASTIGARRAGAN

Kupelak orain jendea zain daude

ASTIGARRAGA

2018/01/20 00:00 Larunbata

Pasa den astelehenean ireki zen txotx denboraldia Gurutzeta sagardotegian eta orain kupelak jendearen zain daude. Aurtengo sagardoak duen zaporea dastatu daiteke ahoan. Egoitz Zapiarek nabarmendu zuen «orekatua» izango dela sagardoa. «Aurreko urteetan baino kolore argiagoa duen sagardoa da».

25garren urteurreneko txotx irekiera ekitaldia

Ekitaldia berezia izan zen 25garren urteurrena ospatzen baitzen eta urte guzti horietan protagonista izan ziren pertsonai ezagun guztiak gonbidatu ziren. Eta noski, aurtengo protagonista; Alberto Iñurrategi mendizalea. Dantzak, musika sagarrondo landaketa, oroigarriak, komunikabide ugari... baina «Gure Sagardo Berria» ohiuaren zai denak.

Txotx Berri Herrikoia indartzen

Aurreko urtean lehen aldiz txotx herrikoia irekiera entzutetsuari jarraipena emateko. Herritarrek ere parte hartzeko modua bilatu nahi zen eta hortik sortu zuen Udalak sagardogileen laguntzarekin.

Irekierak herritar guztiei zuzendutako berrikuntzak uztartu nahi zituen betiko irekiera erakundeei soilik bait zegoen bideratua, eta «herritar bakoitza da garrantzitsua sagardoaren kulturaren transmisioan eta sustapenean» zioten Udaletik.

Beraz, aurreko jarraipena izan du bigarren urtez Txotx Berri Herrikoia, Murgia Jauregian, Astigarragako sagardotegi eta sagardogile ezberdinekin. Udaleko ordezkariak ere parte hartu zuten.

2018ko berrikuntza berriz, tabernarien parte hartzea izan zen. Astigarragako taberneek sagardo berria eskaini zuten arratsaldean zehar.

Pintxo eta sagardo dastaketa

Hasteko familientzako bakailo tortila tailerra egon zen bi txandetan. Ondoren eta bi ordu luzez, txotx herrikoia antolatu zen Murgia Jauregian. Herritarrei irekitako pintxo eta sagardo dastaketaz gozatu zuten haur, gazte, heldu eta adinekoek Norberto Almandoz Musika Eskolako trikitilariak girotuta. Dastaketa amaitu baino lehen argazki herrikoia atera zen.

ARGAZKIAK



Atsegin dut 0

Whatsapp

Emaila

Inprimitu

IRUZKINAK